

Zirti-zarta zirtoka

-Kaixo!

-Ez nago gaixo!

Batek esan eta besteak errimatuz erantzun.

Zirtoka elkarrizketan aritzeko ohitura zen lehen:
hitza jolas, dena ziri eta **zaska**.

Gu ere zirtoka ariko gara, zirti-zarta!

Zertan trebatuko gara...

Zirtoak edo esaldi errimatuak egiten ariko gara.

... eta zer ikasiko dugu?

Errimatzea zer den, esaldian oinak non jarri behar diren eta
potoa zer den.

Plazara!

Komikiak sortuko ditugunez zirtoka, ikusgai jarri ditzakegu
pasilloetan, eskolako aldizkarian edo webgunean.




Zirto zaharrak




Goza dezagun bertsolari zaharren zirtoekin!
Zirtoak komiki bihurtu dizkigu Unai Iturriagak.
Hona hemen Pello Errotak mutiko batekin izandako elkarrizketa errimatua.

**Pedro Jose
Elizegi Maiz**
"Pello Errota"
Asteasu,
1840-1919


Pello Errotak bazuen asto bat
Arroma izenekoa. Bere astoan
egoskorra zen Arroma.



Baita Pellorekin fidela ere.
Hitzen beharrik gabe ulertzen
zuten elkar.



ZER HABIL,
GAZTE,
ARRANTZAN?



BAI, ZEOZER
HARRAPATZEKO
ZALANTZAN!




Ez ziren asko Pello Errotari
zirtoz erantzutera ausartzen
zirenak. Jakina, Pellori ez
zion graziarik egin mukizu
hark, braust!, jaurtitakoak.



PUTZURA ERORIKO
AHAL HAIZ HURRENGO
BALANTZAN!



Arromari ere ez.



Pellok barre,
eta Arromak arrantza,
halaxe argitu zen
zalantza.



Zer da errimatzea?

Bi hitz antzeko soinuarekin amaitzen direnean, belarrira grazia egiten digu. **Errimatu** egiten dute. Errimatzen duten hitzei **oinak** esaten zaie.

Hitz hauetatik zeinek ez du errimatzen?

ALAIA JAIA GARAIA

LASAIA POLITA ANAIA

Oina non jarri?

Esaldiek errimatzea nahi badugu, non jarri beharko dugu errimatzen duen hitza edo oina? Esaldiaren **hasieran**, **erdian**, ala **amaieran**?

Hautatu zein den errimatzen duen esaldia

 **KAKA**

Zakur batek egin du espaloian **kaka**

 **ZAPATA**

Zapata sartu dut juxtu erdi-erdian
Juxtu erdi-erdian **zapata** sartu dut
Juxtu erdi-erdian sartu dut **zapata**




Kontuz...! **POTO**

Esaldiak errimatzeko, ez du balio
oin bera bi aldiz erabiltzeak.

Teilatu gorriraino
igo da **KATUA**

han goian ~~oso pozik~~
daukagu **KATUA**



Hitz* **polisemikoak**

Hitz batzuek **esanahi bat baino gehiago** dute: **polisemikoak** dira.
Beraz, esanahi ezberdinekin erabiltzen baditugu, ez da poto.

Gurpila aldatzeko
hartu dut **KATUA**



Topa ditzagun hitz polisemikoak!

Bota: Zapata / Jaurti
Atera: Irten / Atea dagoen lekura

Berria: Albistea / Zaharra ez dena
Basoa: Edalontzia / Zuhaitz eremua

.....
.....
.....
.....

Gure zirto komikia

Patxi Gallego komikilariak hasitako lana amaituko dugu, elkarrizketa errimatuak osatuz.

Aldiro 3 erantzun emango zaizkigu aukeran: gustukoena hartu eta **esaldia berrantolatu** egin beharko dugu, **oina amaieran** jarrita.

Nora zoaz, Imanol, itxura horrekin?

Bizikletarekin nora joango naiz ba?

Nora joango naiz ba bizikletarekin?

Nora zoaz, Imanol, itxura horrekin?

- a) **bizikletarekin** nora joango naiz ba?
- b) ahal danik urrutien **alde egin** nahi nuke.
- c) nire **lagunekin**, buelta bat ematera.

Kiroldegira noa spinning saiora.

- a) pedalei emateko, **kanpora** nahiago.
- b) gogor eragin arren, **inora** ez zoaz.
- c) ez al duzu kanpoan **denbora** pasa nahi?

Izerdi asko bota eta ondo pasa.

- a) ea ez zaizun **arnasa** asko berotzen.
- b) gogo handia baina **eskasa** sasoia.
- c) biak batera egiten **erraza** ez dago.

Hemen gaudenik ere ez dira ohartu.

- a) goxokiak ditugu eta **hartu** lasai.
- b) eskerrak joatera **behartu** ez nauten.
- c) baietz **bueltatu** guk uste baino lehenago.

Gurasoak kirolari



Bankuan jokoa

Komiki honetan ere zirtoak osatzea falta da.

Baina, oraingoan, **geuk sortuko** dugu erantzun errimatua!

Laguntza gisa, **2 oin aukeran** emango zaizkigu: gogoratu **esaldiaren amaieran** jarri behar dugula oina, errimatzeko.

Baietz nik irabazi hurrengo partida?

Ari da / Begira

Nire aurka gajo hau alferrik ari da!

Baietz nik irabazi hurrengo partida?

Ari da / Begira

.....

Uste baino gehiago kosta behar zaizu.



Aizu / Zu

.....

Tranpa egin didazu, txotxolo zikina!

Berdina / Bazina

.....



Jolasa

Pasa hitza

Errimatzea zer den ikasi dugunez,
jolas gaitezen errimekin asmakizunetan!

Puntu edo esaldi bakarrean pista emango zaigu.
Ea asmatzen dugun, berehalakoan, **hitz ezkutua** zein den.
Adi belarria: erantzunak **errimatu** egiten du-eta!

A Hau gabe zer litzake
gure **ikasgela**?

A _ _ _ _ _

E Animalia erraldoi
ta **elegantea**

E _ _ _ _ _

H Iristean estali
lepo ta **kokotza**

H _ _ _ _

B Ikasturte honetan
ikasten **gabilitza**

B _ _ _ _ _

F Pilotariek bertan
nolako **sasoia**

F _ _ _ _ _

I Burdina erakarri
ohi du **beregana**

I _ _ _ _

D Hiri honetan nonbait
polit da **guztia**

D _ _ _ _ _

G Ez da azukrea baina
badu bere **antza**

G _ _ _ _

J Leku batzutan urri,
hemen **ugaria**

J _ _ _ _ _

K Motxilan bat badaukat
paperez **beteta**

K _ _ _ _ _

O Galtzak jostean, zasta!
zulatu dit **hatza**

O _ _ _ _ _

U Ukitzen dugu hanka
sartzean **putzura**

U _ _

L Goizean jaikitzean
ohi daukagun **hura**

L _ _ _ _ _

P Nire gelako horman
badut bat **ederra**

P _ _ _ _ _

V Mediterraneo alboan
ze **elegantzia**

V _ _ _ _ _

M Gure maiteengandik
jasotzen **duguna**

M _ _ _ _ _

S Galtzontziloak bistan
ibiltzen da **hegan**

S _ _ _ _ _

Z Iruñeako kaletan
sarri **dabilena**

Z _ _ _ _ _

N Bizitzeko jan bila
hona eta **hara**

N _ _ _ _ _

T Gustatzen zait letxuga
artean **jatea**

T _ _ _ _ _